

2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANAREN EBALUAZIO-TXOSTENA
(2009-01-15)

Aurkibidea

SARRERA

1. 2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANA BERRIKUSTEN

- 1.1. Oinarrizko arazoak eta euskal kulturarentzako aukerak
- 1.2. Xedea, helburuak eta hamar ardatz estrategikoak

2. 2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANAREN EBALUAZIOA

- 2.1. 2004-2008 aldiko betetze-mailaren balantzea, ardatzen eta ekintzen arabera.
- 2.2. 2008ko plan operatiboen betetze-mailaren balantzea, gehigarri moduan.
- 2.3. 2004-2008 Planaren balantze ekonomikoa.
- 2.3. Ondorioak

SARRERA

I Kulturaren Euskal Planaren ebaluazioa aurkezten du txosten honek, plan estrategikoen emaitzak era kolektiboan aztertzea eta baloratzea ohitura eredugarria dela uste dugulako, batetik, eta hurrengo planak hobetzeko ezinbestekoa delako, bestetik. Hari beretik aurkezten dira 2008-2009rako (zenbaitetan 2010era luzatuta) sektoreekin batera landu diren plan operatibo berriak.

Txostenaren lehen puntuan plana egitean kontuan hartu ziren elementurik garrantzitsuenen laburpena ageri da.

Bigarren puntuan, berriz, 2004-2008 Kulturaren Euskal Planaren edukiak aztertu eta ebaluatzen dira, planaren hasieratik lau urte bete direnean.

Eranskinen hirugarren puntuan agertzen dira txostenean aipatutako ebaluazioaren alderdiak.

1- 2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANA BERRIKUSTEN.

Frankismoaren ondoren, 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadan, beharrezkoa zen euskal kultura- eta politika-sistema berreraikitzea, eta zenbait ekimen kultural sortu ziren helburu horrekin. Kulturaren eraikuntzaren eta demokratizazioaren funtsa zen lehen azpiegiturak egitea, hedapena sustatzea eta diru-laguntzak lerroak martxan jartzea hainbat asmo betetzeko, esaterako, laguntza emateko sortzaileei, enpresei, ikuskizunei, jaialdiei, ekitaldiei...

Hori dela eta, kultura-politika euskararen normalizaziora bideratu zen, luzez alde batera utzita egondako ondareak berrizatzera, sortzaileentzako presazko laguntzetara, irrati-telebistako sistema bat abian jartzera, sare soziokulturalak berreraikitzeke azpiegituren eta ekipamenduen politika bat hastera eta ikuskizunak eta erakusketak finantzatzera, biztanleak kulturarekin harremanetan jartzeko.

Hogei urteko esperientziaren ondoren, 2000. urtean ezarritako planifikazioari ekin ahal izan zitzaion. Bi urte behar izan ziren guztien artean Kulturaren Euskal Plana (KEP) definitzeko, eta, azkenik, 2004an onartu zen.

1.1. *Oinarrizko arazoak eta euskal kulturarentzako aukerak*

Lehen KEP (KEP I) kultura-munduan zebiltzanekin egin zen goitik behera, guztien artean egindako diagnostiko batetik abiatuta, administrazioek zein kultura-sektoreek orientazio gisa erabili ahal izan zezaten.

Laburrean, 2004-2008ko KEP egin aurretiko diagnostikoan **puntu indartsu** hauek detektatu ziren:

- a) Geure kultura dugu, berezitua, eta oso duina herrialde txiki baterako; bere indarra duen sistema kulturala, nahiz eta desberdin banatuta egon; ondare berezia dugu, gizarteak ikuspegi hartzailearekin ikusten duena, bai eta gure gauzetarako estimua ere. Esperientzia handia dugu industriaren eta teknologiaren arloan, geure kulturaren aurrean gizarteak jarrera hartzailea du, oro har, eta zenbait sektoretan parte hartzeko joera handia dagoela ere esan daiteke. Euskararen ezagutza eta erabilera nabarmen zabaldu da azken 25 urteotan.
- b) Alderaketa eginez gero, kulturaren arloan jakintza dugu —nabarmenagoa XIX. mendearen amaieratik, Europako abangoardien fenomenoarekin lotura izateagatik—, hezkuntza-sistema indartsu antzekoa, egile berriak ematen dituen kultura-haztegiei bidea egiten diona, biztanleko kultura-kontsumo garrantzitsua, hainbat kultura-arlotan gizarte-jarduera eta jarduera amateur aktiboak, eta etxeetako informatizazio-maila eta Interneten erabilera-maila aurreratua. Prentsa irakurtzen eta irratia entzuten dutenen maila nahiko handia da, bai eta liburuen, fonogramen eta ikus-entzunezko materialaren eskariarena eta jaialdietara eta musika-ekitaldietara joaten direnena ere. Museoen bisitari-kopuruak eta liburuen mailegu-kopuruak ere gora doaz. Gutxiago dira



ikuskitzen eszenikoetara joaten direnak; hala ere, abesbatzetan, dantzan eta beste zenbait jardueratan parte-hartze kolektiboa nahiko handia da.

- c) Tradizio artistiko eta sortzaile handia dago hainbat eremutan: arteetan (ikusizkoetan eta plastikoetan, musikan, dantzan, antzerki herrikoian), ondarean (arkitekturan, arkeologian, etnografian...) eta kultura-industrietan (zineman, saiakeretan, literaturan, diskoetan...); horrek esan nahi du publikoa leiala dela gustukoen dituen sortzaileekin, batik bat musikariekin, baina baita idazleekin, artista plastikoekin, zinemagileekin eta abarrekin ere.
- d) Alderdi indartsuak dira, halaber, euskal kulturari erakundeek eman diezaioketen laguntza, eragileek adostasunerako duten esperientzia eta gizarte zibil oso aktiboak inplikaziorako duen esperientzia; bai eta migrazioaren fenomenoaren errespetuan eta herritartasun barneratzailean oinarritzea ere.

Hona hemen hautemandako **puntu ahul** nagusiak:

- a) Oraindik ez dago euskal kulturaren, haren edukien eta garapen-beharren ikuspegi bateraturik.
- b) Kulturaren ekoizpen propioa txikia da oraindik ere. Sortzaileek eta interpreteek aukera hobek bilatzen dituzte eskala handiagoko ekonomiak dauden lekuetan, eta horrek herrialdea kulturalki ahuldu egiten du apur bat. Sormen-lana asko profesionalizatu da, baina oraindik ere txikia da, eta are ezegonkorragoa bilakatu da. Balio-katean sorkuntza da, sarri asko, katebegirik ahulena.
- c) Euskararen erabilera mugatua izateak euskal kulturaren garapena ere mugatu egiten du.
- d) Merkatua txikia denez, ez dago behar besteko eskalako ekonomiarik. Euskarazko produkzioan izan ezik, kanpoko eskaintza da nagusi, eta, sarritan, erakunde handietatik etorri ohi da, korporazio, multinazional zein Espainiako enpresak izan. Euskal kultura-eremua hizkuntza batean baino gehiagotan garatzen da —haren ezaugarri bereizgarrietako bat da hori—, eta, gainera, biztanle gehienak elebidunak ez direnez, are desabantaila gehiago ditu.
- e) Banaketa- eta komunikazio-sistemak ez du guztiz asmatu bertako ekoizpenaren hedapena bultzatzen.
- f) Gehikuntza handia jasan duen arren, sarea erabiltzeko kultura txikia da oraindik ere. Interneti dagokionez, gutxi erabiltzen da oraindik ere norberaren produktuak banatzeko eta erakusteko.
- g) Hezkuntza-sistemak gabeziak ditu oraindik materia grisaren eskari handiari kalitatez erantzuteko.
- h) Esan daiteke aurrekontu handiagoen beharra dagoela oraindik kulturaren politika globala egiteko, eta, hala, kulturaren espezializazioa lortzeko, bai sormenaren bai



ekoizpenaren arloan, eta integrazio soziokultural handiagoa eta kulturaren demokratizazioa lortzeko.

1.2. Xedea, helburuak eta hamar ardatz estrategikoak

KEPk lehenetasunezko bost helburu ditu:

- egitura solidoek eutsitako sorkuntza eta ekoizpena lehenestea;
- kultur integratzaileko ahalegina egitea;
- nortasuna indartzea;
- modernizazioa eta
- kanpo proiektzioa.

2004an, beraz, kultura-politika eta -planifikazioko zenbait oinarriko funtzio hautatu ziren, hala nola sorkuntzaren eta ekoizpenaren sustapena; ondarea zaintzea eta eguneratzea eta horren garrantzia; norberaren zein besteen ondare-kultura artistiko eta industrializatuaren erabilera soziala, eta kultura komunitario propioa, modernoa eta irekia eraikitzea, bere identitatea duena, bai eta bere hizkuntza ere.

2004-2008 tarterako ardatz estrategikoetan 120 ekintza inguru zeuden —egikaritzeko epe banarekin—; hauek izan ziren 2015era arteko gai-adierazleak:

- **1. Ardatz estrategikoa:** Kulturaren Euskal Sistema eraikitzea erakundeak, baliabideak eta eragileak elkartuta eta lurraldeen arteko kultura-sarea osatuta.
- **2. Ardatz estrategikoa:** EAEko kulturaren bilakaeraren informazioarako eta jarraipenerako sistema bat ezartzea, eta sektoreko plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea.
- **3. Ardatz estrategikoa:** Kultura gordetzeko, ikertzeko, sortzeko, ekoizteko, merkaturatzeko eta hedatzeko politika berriak aplikatzea.
- **4. Ardatz estrategikoa:** Kultura-ondarea eta haren balio-katea dinamizatzea.
- **5. Ardatz estrategikoa:** Ikusizko arteak eta arte eszenikoak dinamizatzea.
- **6. Ardatz estrategikoa:** Kultura-industriak dinamizatzea.
- **7. Ardatz estrategikoa:** Kulturaren arloan euskararen erabilera bultzatzea.
- **8. Ardatz estrategikoa:** Ezagutzaren gizartearen esparruan kultura bultzatzea gizarte-kohesioko ardatz gisa.
- **9. Ardatz estrategikoa:** Sorkuntzan eta ekoizpenean teknologia eta adierazpide berriak berreskuratzeko eta egoki erabiltzeko bultzatzea.
- **10. Ardatz estrategikoa:** Euskal kultura nazioartean ezagutaraztea.

2- 2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANAREN EBALUAZIOA.


Esan beharra dago kultura-politikak jauzi kualitatiboa egin duela azken lau urte hauetan. Aurreko politika guztiz egokia izan bazen, are hobea izan da hurrena edukietan, helburuetan, egitasmoetan, jardunbideetan eta parte-hartzean. Gainera, oinarri sendoak ezarri ditu II. KEPa garatzeko eta, plan horren bidez, oinarri horiek finkatu eta zenbait alderditan aldaketa kualitatiboa egiteko.

Guggenheim eta Balentziaga ekipamendu garrantzitsuetan (orainaldi arrakastatsua eta etorkizun emankorra dute biek ala biek), arazoak sortu eta horiek politizatu egin dira. Lau urteko balantzea eginda, ordea, proposamena da arazo horiekin ez itsutzea eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Kulturaren Euskal Kontseiluaren baitan, 2004-2008 KEParen bidez ezarritako kultura-politikaren aktiboak ikustea.

2.1. 2004-2008 aldiko betetze-mailaren balantzea, ardatzen eta ekintzen arabera.


Lantalde gogotsu eta arduratsuek lortutako betetze-mailaren balantzea bikaina da, aurreikusitako ekintzen % 85,5 bete baita (ikus I. eranskina, balantze orokorra). Kontuan hartu behar da deialdien, diru-laguntzan, inbertsio aginduen, lege-garapenen zein egitarauen ohiko kudeaketari gehitutakoak direla 120 ekintza hauek, eta administrazioen kultura sail eta atalen indar ugari jarri dela horietan.

1. 2004-2008 KULTURAREN EUSKAL PLANAREN BETETZE- MAILA OROKORRA



la ardatz guztietan, betetze-maila % 80-100ekoa izan da. Salbuespenak (eta neurri batean bakarrik) hauek dira: 3. ardatza (sustapen-politika berriak), % 50eko betetze-maila baitu; 4. ardatza (kultura-ondarea), % 79,8ko betetze-maila baitu; eta 8. ardatza (gizarte-koherenako kultura-garapena), % 76,8ko betetze-maila baitu. Sustapen-ildo berriek aurrera egiteko saiakerak dituzten zailtasun objektiboen adierazpide dira horiek (pertsonal gehiagoren beharra, aurrekontu handiagoak, beste sail edota erakundeen partehartzea); edota lege-garapenen erritmo mantsoen zein gizarte-koherenako ardatz gisa kultura sustatzeko eskumen zuzenik ez izateak (hezkuntza, komunikabide pribatu eta jarduera amateurak) datozten zailtasunak hain zuzen ere.

2. KULTURAREN EUSKAL PLANAREN BETETZE- MAILA ARDATZEN ARABERA




Bete ez diren edo zati batean bete diren ekintzen % 14,5en barruan, kontuan hartu behar dira indar nahikorik ez izateagatik garatu ez direnak, aldez aurretik bestek abian jarri behar zituztenak —hala nola Etxepare Institutuak eta oraindik sortzeke dagoen Arte eta Kultura Industrien Euskal Institutuak— edo ekintzak betetzeko langile-kopurua areagotzea eskatzen zutenak (finantzaketa- edo sustapen-ildo berriei ekiteko, adibidez).

Halaber, plana sektoreen proposamenen emaitza bada ere, inork eskarmenturik ez zuenez, 120 ekintzetako batzuk —hamar- zehaztugabeak edo bete ezinak izan dira, bai ekintzen beraien izaeragatik bai erakundeen arteko itunen mende edo beste erakunde batzuen mende zeudelako (eta, beraz, Kultura Sailak proposatu besterik ezin zuen egin).¹ Hala ere, —eta

¹ Ekintza-proposamen batzuk bete ezinak dira oraingoz: Jaurilaritzak lagundutako jarduera amateurak (zuzeneko zenbait diru-laguntza izan ezik, foru-aldundiek eta udalek estaliak); erakundeen itunen edo beste erakunde batzuen mende dauden ekintzak (ondararako lurraldeko sektore-plan teknikoak, museoetarako plana, erosketako aholkularitza-batzordea) edo beste erakunde batzuenak. Gauza jakina izan da beti gai hauen inguruan KEParen xedea eskudunei proposamenak egitea zela, eta, halakorik egin ezean, kulturari eragiten dieten erronka garrantzitsuak *sine die* atzeratzen direla. Egoera horretan daude zenbait gai: Ogasuna (fiskalitatea), Hezkuntza (curriculum), Industria (arriku-kapitala, industria-politikako zeharkako neurriak, aholkularitza-entresak...), Lana (fundazioak).

bete ezin diren ekintzek kudeaketa onik edo txarrik adierazten ez duten arren—, zenbaketan sartzea erabaki da, emaitza positiboaren ehunekoa jaitsarazten badu ere. Eskarmentu hori dela eta, formula errealistagoak erabili behar ditugu 2. KEPean.

3-BETETZE-MAILA ARDATZEN ARABERA, 2006 ETA 2008. KULTURAREN EUSKAL PLANA



KEP	1ARD	2ARD	3ARD	4ARD	5ARD	6ARD	7ARD	8ARD	9ARD	10ARD	GUZT
2006ko betetzea	65.2 %	96.6 %	28.1 %	39 %	65.2 %	50.9 %	78.8 %	46.4 %	51.6 %	62.5 %	58.42 %
2008ko betetzea	95,8 %	100 %	50 %	79,8 %	94,8 %	83 %	100 %	76,8 %	87,2 %	87,5 %	85,5 %


4- BETETZE-MAILA LEHENTASUNEZKO LERROEN ARABERA. KUTURAREN EUSKAL PLANA

ARDATZA	LEHENTASUNEZKO LERROEN BETETZE-MAILA	ARDATZAREN GARAPENA
1 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Kulturaren Euskal Sistema eraikitzea	L01 (100%) + L2 (87,5%) + L3 (100%)	% 95,8
2 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Informazio eta jarraipen sistematikoko sistema ezartzea	L01 (100%) + L2 (100%) + L3 (100%)	% 100
3 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Politika publiko berriak ezartzea.	L01 (25%) + L2 (100%) + L3 (50%) + L4 (25%)	% 50
4 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Kultur Ondarea dinamizatzea	L01 (91,7%) + L2 (75%) + L3 (72,5%) + L4 (60%) + L5 (100%)	% 79,8
5 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Arteak dinamizatzea	L01 (100%) + L2 (100%) + L3 (100%)+ L4 (79,2%)	% 94,8
6 ARDATZ ESTRATEGIKOA: kultur industriak dinamizatzea	L01 (100%)+ L2 (81,3%)+ L3 (100%) + L4 (100%) + L5 (100%) + L6 (25%) + L7 (75%)	% 83
7 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Euskararen presentzia indartzea	L01 (100%)+ L2 (100%)+ L3 (100%)+ L4 (100%) + L5 (100%) + L6 (100%) + L7 (100%)	% 100
8 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Kultura gizarte kohesioa garatzeko tresna gisa sustatzea.	L01 (100%) + L2 (75%)+ L3 (91,7%)+ L4 (25)+ L5 (83,3%) + L6 (62,5%) + L7 (100%)	% 76,8
9 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Teknologia berriak	L01 (75%) + L2 (75%)+ L3 (83,3%) + L4 (100%)+ L5 (90%) + L6 (100%)	% 87,2
10 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Euskal kultura nazioartean zabaltzea	L01 (100%) + L2 (100%) + L3 (62,5%)	% 87,5
KEPAREN BETETZE-MAILA OROKORRA		% 85,5

Kontseiluak “eragile edo traktore” moduan zehaztutako ekintzen betetze-maila azpimarratzeko modukoa da, %95,4koa.

5- EKINTZA ERAGILEEN BETETZE-MAILA. KEP 2004-2008


EKINTZEN GARAPEN MAILA 2008an



EKINTZA ERAGILEAK

BETETZE-MAILA: 94.4%


EKINTZA ERAGILEEN GARAPEN MAILA (36)



EKINTZA EZ ERAGILEAK

BETETZE-MAILA: 80.2%

EKINTZA EZ ERAGILEEN GARAPEN MAILA (87)



2.2. 2008ko plan operatiboen betetze-mailaren balantzea, gehigarri moduan.

Planaren arabera betetako ekintzen % 85,5i beste hainbat ekintza gehitu behar zaio. Ekintza horiek plan operatiboen edo eskarmentuaren ondorio dira, 2008an sortu edo zati batean egindakoak, eta planaren kudeaketa bikainaren adierazle dira, hurrengo epigrafean ikusten denez (ikus III. eranskina, plan operatiboen balantzea). Horixe dugu plana aberasten duten alderdietako bat, eta planaren eginkizun parte-hartzailea eta dinamikoa nabarmentzen du; gainera, garatu ahala ekarpen berriekin eguneratzen da etengabe.

Plan operatibo edo ekintza-planen garapenaren ebaluazioa egiteko, proiektu bakoitza osatzen duten zereginak azertu dira eta bi emaitza mota sortu ditugu :

- Plan operatiboetan 2008rako planifikatutako zeregin burutuak ehunekotan emanda.
- Plan operatiboen barruan 2008ko zereginen betetze-maila ehunekotan emanda (kontuan hartu behar da planetan aurreikusitako zeregin gehienak 2009an zehar luzatzen direla, baita 2010era luzatzen direnak ere).

Ebaluazioaren atal hau atontzeko sektoreetako talde operatiboek prestatutako planifikazioa erabili da, talde operatibo bakoitzak ekintza-plana zehazteko erabili duena hain zuzen.

6.1. PLAN OPERATIBOEN BETETZE-MAILAREN LABURPENA. KULTURAREN EUSKAL PLANA

SEKTOREA	PROIEKTU KOPURUA	ZEREGIN KOPURUA	2008rako AURREKUSITAKO ZEREGINAK. (Kopurua eta orokorrean egindakoa %)	2008rako aurreikusitako zereginetan egindakoen %	PLANGINTZA OROKORREAN EGINDAKOA %
ARTISAUTZA	4	14	9 (%65)	% 88	% 57
ANTZERKIA	11	64	15 (% 23)	% 93	% 22
DANTZA	8	58	13 (% 29)	% 100	% 29
IKUSIZKO ARTEAK	15	26	17 (% 65)	% 82	% 58
LITERATURA	6	37	6 (% 16)	% 100	% 16
IKUS-ENTZUNEZKOA	11	35	21 (% 60)	% 85	% 51
ONDAREA	4	11	8 (% 72)	% 75	% 55
LIBURUTEGIAK	5	13	13 (%100)	% 61	% 61
AGIRITEGIAK	3	9	5 (% 55)	% 80	% 44
MUSEOAK	1	3	2 (% 66)	% 100	% 66
LURRALDE GARAPENA	4	10	6 (% 60)	% 100	% 60
MUSIKA	6	Definitzeke			
GUZTIRA	72	280	115 (%47)	% 74	% 39


PLANGINTZA			EBALUAZIOA	
PROIEKTU KOPURUA	ZEREGIN KOPURUA	2008rako AURREKUSITAKO ZEREGINAK (KOPURUA ETA OSOAREKIKO PORTZENTAIA)	2008rako PLANIFIKATUTAKO ZEREGIN BURUTUAK (%)	PLANGINTZA OROKORREAN EGINDAKOA (%)
72	280	115 (47 %)	74 %	39 %

Plan operatibo berrietatik sortutako 71 egitasmoetan 280 eginkizun ezarri dira 2008-2010 aldirako. Gehienak (% 93) guztiz berriak dira, 5 proiektu dira 2004ko jatorrizko planean eta oraingo plan operatiboetan agertzen direnak zehaztasun gehiagorekin berreginda.



Plan operatibo berrietako 280 eginkizun horietatik 115 ziren 2008an betetzekoak. Horietatik %74 iaz bete ziren, eta, beraz, 2008-2010 aldirako aurreikusitako en %40 gauzaturik daude dagoeneko. Garapena handia izan dela egiaztatu da, eta oreka egon dela sektoreetan, hau da, ez dela sektorerik nabarmendu.

6.2. PLAN OPERATIBOEN BETETZE-MAILA

SEKTOREETAKO PROIEKTU KOPURUA



2008ko PLANIFIKAZIOAN EGINA (%etan)



2.3. 2004-2008 Planaren balantze ekonomikoa.

7- KULTURAREN EUSKAL PLANAREN AURREKONTUAK 2004-2009 (Eurotan)								
KEP 2004	KEP 2005 E	KEP 2006	KEP 2007	KEP 2008 E	2004-2008ko urteko batezbesteko gehikuntza	2009rako KEP	2004-2009ko urteko batezbesteko gehikuntza	2004-09 Guztira
776.000 *	1.351.000	1.365.000	1.930.000	2.570.000	%46	3.599.000	%60	11.591.000

Kulturaren Euskal Planaren aurrekontua ia bost aldiz handiagoa 2009an 2004arekin alderatuta, 776.000 euro 2004an eta 3.599.000 euro 2009an. 11,6 milioi euro dira 6 urte hauetarako, urteko batezbesteko %60ko gehikuntzarekin. 2004-2008ko aldia hartuz, 7.992.000 euro dira urteko batezbesteko %46ko gehikuntzarekin.

Plana 2004ko irailean onartu zela hartu behar da kontuan, urte horretako aurrekontuan sartzen baitira plana onartu aurreko lanak zein 2004ko irailetik aurrera plana martxan jartzeko neurriak.

2.4. Ondorioak

Gure ustez, alderdi kualitatibo garrantzitsuenak hauek izan dira:

a) -Kulturaren gobernantza aurreratua

Kulturaren gobernantza aurreratua izan da irizpidea Kulturaren Euskal Plana betetzeko. Hau da, kultura-egileek, parte hartu ez ezik, Kultura Politikaren inguruan — definizioa, garapena eta betetzea— erabaki ere egin zuten (Kulturaren Euskal Plana agiri kolektiboa izan zen). Administrazio publikoen, kultura-entitateen eta kultura-eragileen arteko kudeaketa antolatua eta baterakoa eginez inplementatu da.

Sektore bakoitza 12 lantaldek kudeatzen dute, eta 300 lagun aritu dira plana betetzen. Lantalde egonkorak eta aholku-batzordeak izan dira planaren motorra, eta haiak erabaki dituzte erakundeek inplementatu eta Kulturaren Euskal Kontseiluak balioztatzen dituen plan operatiboak. Sektoreko eragile nagusien lantaldeetan parte hartzen dute.

b) -Kulturaren inguruko sektoreak egituratzea, hitzarmenak lortzeko.

Kulturaren euskal sektorea atomizatua eta bakandua zegoen zati handi batean. Orain, berriz, ordezkartza garrantzitsua eratu da, erakundeek elkartegintzari emandako laguntzaz. Hitzarmen eta zuzkidura ekonomikoen bidez, sektoreek egitura, mamia, ordezkartza eta egitasmoak ezagutarazteko ahalmena lortu dituzte, eta haien posizioetatik kulturaren gobernantzan parte har dezakete. Haien asmoak helarazi eta beste sektoreei entzuteko aukera dute, euskal kulturaren lan kolektiboa, etengabe berritua, eginez.

c) -Erakundeen arteko koordinazioa: Kultura-politika integratua

Jaurlaritzako Kultura Saileko goi-arduradunek, hiru aldundietakoek, hiriburu eta udaletakoek eta EUDELekeok bilera egiten dute hilean behin, haien egitasmoak eta araudien zirriborroak azaltzeko, sektoreko lan-ildoak adosteko... Helburua da politikak arrazionalizatu eta optimizatzea, norabide berean jardutea, eta eragin sendoagoa izatea. Lan partekatu hau politikagintzaren tirabiren eraginetik at mantentzeko ahaleginak egin dira.

Esparru honetan sartzen dira Kultura Sailaren eta beste sail batzuen arteko gaikako harremanei ekitea (Industria, Hezkuntza, Gizarte Gaiak...) edo ikus-entzunezkoen klusterra eta parekoak laguntzea, diru-laguntzaz harantzagoko finantzaketa-ildoak ezartzea, Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola laguntzea, immigrazioarentzako kultura-ekimenak, zeharkako esparruetan sartzea (informazioaren gizarteko Euskadi Plana) edo Jaurlaritzaren politika publikoen barruan, kulturaren politikari indarra ematea erakundeetan.

Kultura Sailaren ohiko euskarriak euskarri osagarriak behar ditu, konplexuagoak eta erakunde artekoak, beste eremu batzuekin batera jarduteko: hezkuntza, industria, teknologia, gizarte-gaiak...

d)- Erakunde egituratzaileenei oinarria jartzea

Politika aldatzeak politika hori sustatzen duen eragilearen egitura aldatzea dakar. Horrela sortu da Kulturaren Euskal Behatokia, informazioa eratzeko eta jarraipena egiteko; Kulturaren Euskal Kontseilua, bere lantalde eta plan operatiboekin; Ikus-entzunezkoen Klusterra eta Etxepare Institutua, kanpoko kultura-politikarako. Onartzekotan dago, halaber, Arteen eta Kultur Industrien Euskal Institutua; horren bidez, politika publiko koherentea, kogestionatua eta iraunkorra egin ahal izango da.

e)-Kulturaren sektore bakoitzean garapen nabarmenak egitea

Osotasuna baztertu gabe, ezinezkoa da kultura-politika egitea, hura kulturaren sektore eta eremu bakoitzean zehazten ez bada. Sektoreak hobetze aldera, horiek kontuan hartuta berrikusi dira ohiko laguntza-sistemak, eta, diru-laguntzetatik edo ohiko ekintzetatik harantzago joateko, ekintza ugari egin da finantzaketan eta antzeko gaietan (finantzaketak egin dira, edo klusterra ikus-entzunezkoetan), kanpo-sustapenean... Adostutako plan operatiboak eratu dira sektore bakoitzarentzat, Kulturaren II. Euskal Planaren zati nagusia osatuko dutenak.